

AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEEN AUTONOMIA-ESPARRUA ARAUTZEN DUEN XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO.

2022ko uztailearen 15ean, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legea argitaratu zen EHAAn. Lege horrek beste testu artikulatu oso batean sartzen eta biltzen zituen xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arloko arau guztiak, eta orain arte indarrean zegoen Legea ordeztu zuen, 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena.

Zehazki, 11. artikuluan, zeina herritarrei alde zuzeneko kontsulta egiteari buruzkoa baita, hau zehazten da:

"1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako alde zuzeneko kontsulta-izapide horretan, behar diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarrekin parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio alde zuzeneko kontsultetan parte hartzen duen orori, administrazioari langile zein herritarra izan.

2. Alde zuzeneko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiak aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3. Alde zuzeneko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat alde zuzeneko onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak. Memorian horrela jasota utzi behar da, hala bada."

Hezkuntza Sailak aurreikusita du Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen autonomia-esparrua arautuko duen dekretu-proiektua egiten hastea.

Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritik, herritarrek araudia egiteko prozeduran parte har dezaten sustatze aldera, arau-proiektua egin baino lehen, kontsulta publikoko aldi bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web-atariaren bidez, herritarren iritzia eta etorkizuneko araudiaren eragin handiena jasango duten erakunde esanguratsuenen iritzia jaso ahal izateko, honako gai honekin lotuta:

1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen VI. tituluak ikastetxeak eraldatzeko gai nagusi bat arautzen du. I. kapituluaren, xedapen orokorraren esparruan, ikastetxeen autonomiaren printzipioa eta ikastetxeetako kudeaketa-tresnak onartzen dira. Segidan, II.



kapituluak gai garrantzitsu bati heltzen dio: hezkuntza-proiektuaren erregulazioari, zeina sailaren hezkuntza-plangintzaren estrategiaren barruan sartzen den.

Bestalde, Hezkuntzaren Legearen III. tituluaren xedea da Euskal Hezkuntza Sistemaren gobernantza instituzionala arautzea. Bertan, hainbat alderdi garrantzitsu lantzen dira, hala nola plangintza estrategikoa, programa-kontratuak, ikastetxeen gobernua eta zuzendaritza, gobernu-organismoak ikastetxeen tipologiaren arabera zehaztuta, eskola-kontseiluen arkitektura gobernantza-eredu batean parte hartzeko bide instituzional gisa, eta, azken batean, hezkuntza-komunitatearen beraren eginkizuna, bereziki ereduaren eragile nagusi diren ikasle, irakasle, talde profesional eta familiena.

Estrategia hori asmo handiko erronka batean zehazten da; alegia, ikastetxeekin programa-kontratuak egitea, legearen III. tituluaren arautzen denaren arabera. Baina, jakina, ikastetxeen benetako autonomia eta sistemaren kalitatea bera, neurri handi batean, sailaren plangintza estrategikoaren eta ikastetxeek izan behar duten autoantolaketa- eta autonomia pedagogikorako eta kudeaketa-autonomiarako espazio existentziala behar bezala antolatua izatearen baitan egongo da.

Ikasleek ikaskuntzaren subjektu aktibo gisa betetzen duten posizio zentralak berekin dakar lidergoen eta gobernantza-ereduen ikuspegi eraldatzailea, bai eskola-antolamenduan, bai Euskal Hezkuntza Sistema osoan ere. Hala, eskola-antolamenduan premisa hau hartzen da abiapuntutzat: zuzendaritza eta zuzendaritzaren eginkizun espezifikoa betetzen dituen pertsona-taldea arrakasta-faktore erabakigarria da ikastetxearen kudeaketa eta hezkuntza-proiektua bera bultzatzeko, bai eta gelan, ikastetxe osoan eta haren komunitate hurbilenean lankidetzak praktikak sustatzeko eta sinergiak sortzeko ere. Esparru instituzional horretan, hezkuntza-komunitatea da, ikastetxearen beraren bitartez, hezkuntza-proiektuetatik eratorritako aberastasuna islatzen duena, ikasleen errealitate gardentasunez egokituz, kontuak emanez eta proiektu berritzaile baten bidez, ikasleek beren gaitasunak garatzen jarraitzea ahalbidetuko dien konpetentzia-mailarik handiena lor dezaten.

I. kapituluak plangintza estrategikoko tresnen alde egiten du, Euskal Hezkuntza Sistema modu ordenatu eta arrazionalen eraldatzeko eta egokitzeko bide gisa. Horretarako, planak txertatzen ditu, eta, haietatik abiatuta, ikastetxeekin egiten diren programa-kontratuak adostu ahal izango dira. Programa horiek taldekatu egin ahal izango dira eta, hala badagokio, berezitasunak txertatuko dira, ikastetxe bakoitzaren ezaugarrien arabera. Lankidetzak-gobernantza, hain zuzen ere, lau urteko tresna estrategikoa horretan oinarritzen da, ekitatea eta hezkuntza-bikaintasuna areagotzeko lan-ildo nagusiak zehazten baititu. Plangintza-oinarri horren gainean funtsatzen da programa-kontratuak, halakorik bada, plangintza estrategikorako tresna juridiko, ekonomiko eta finantzario gisa, planaren gidalerroak gauzatzen laguntzeko. Urrats erabakigarria da hori, irakaskuntzak datozen urte eta hamarkadetan dituen erronka eta desafio itzelei erantzun egokia ematerakoan.

II. kapituluak nabarmentzen du nolako eginkizun baliotsua betetzen duten zuzendaritza-organismoek lidergo pedagogikoan eta ikastetxeen etengabeko eraldaketa- eta egokitzapen-prozesu hori bideratzeko tresna egokiak emateko moduan. Prozesu horretan, zuzendaritzaren zeregina erabakigarria izango da, eta hala azpimarratzen da legean. Azken helburua, erregelamendu bidez bideratuko dena, ikastetxeen zuzendaritza-egiturak ardatz hauetan oinarritzea da: autonomia, eskumen propioen erabilera, kudeaketaren erantzukizuna eta ebaluatze gaitasuna.

Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren plan estrategikoaren eta ikastetxeen programa-kontratuaren arteko lerrokatze egokiak bete-beteko zentzua hartzen du ikastetxe bakoitzak bermatua duen autonomiaren printzipioan. Eta autonomia hori kontzeptzio trifasiko baten inguruan egituratu da tradizionalki, III. kapituluaren jasotzen denez: autonomia pedagogikoa, antolamendu-autonomia eta kudeaketa-autonomia. Eta horixe da legean jarraitzen den ereduak, aipatutako hiru dimentsioetako bakoitzaren bidez lortu nahi diren helburuak zehatz-mehatz zabalduz. Azken helburua da ikastetxeak

ahalduntzea, Euskal Hezkuntza Sistemaren kalitatea hobetzeko testuinguruak eskatzen dizkien egokitzapen- eta eraldaketa-prozesuak gauzatu ditzaten, Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak une bakoitzean diseinatutako hezkuntza-politikaren ardatzekin bat eginez.

Arestian azaldutakoaren ildotik, beharrezkotzat jotzen da ikastetxeen autonomia erregelamendu bidez garatzea eremu hauetan: pedagogia, antolaketa eta prozeduren eta giza baliabideen, baliabide teknologikoen eta baliabide materialen kudeaketa. Horiek guztiak Hezkuntzaren Legean jasotako baldintzetan.

2.- Proiektatutako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia.

Administrazioek hezkuntza-jardueraren esparru orokorra ezarri behar badute ere, ikastetxeek beren jarduna zirkunstantzia zehaztutara eta ikasleen ezaugarrietara egokitzeko aukera emango dien autonomia tarte propioa behar dute ikasle guztien eskola-arrakasta lortzeko.

Hiru dira eskola-autonomiaren giltzarriak: legegintza-erreferenteak, administrazioek ikastetxe bakoitzean sortzen diren hezkuntza-proiektuei ematen dieten babesak eta ikastetxe batek benetan dituen erabakitze gaitasunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen (aurrerantzean, Hezkuntzaren Legea) VI. titulua ikastetxeen autonomiari buruzkoa da. Era berean, titulu horrek 3 kapitulu hauek ditu:

I. kapituluak ikastetxeen autonomiaren xedapen orokorrak garatzen ditu (95. artikulua), eta 96. artikuluan zehazten du ikastetxeen autonomia, funtsean, dokumentu hauen bidez babesten dela:

- Hezkuntza-proiektua. Besteak beste, curriculum-zehaztapenak jasoko ditu, eta hizkuntza-proiektua ere proiektu horretan sartuko da.
- Kudeaketa-proiektua.
- Ikastetxearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia.

Halaber, ezartzen du ikastetxe bakoitzak kudeaketa-plan bat onartuko duela urtero, programa-kontratuarekin bat datorrena, halakorik badago. Kudeaketa-plan horretan, ikastetxeak adierazle batzuk ezarriko ditu, eta denbora-tarte horretan egin den kudeaketaren emaitza ere ebaluatuko du, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak egindako plan estrategikoaren arabera. Era berean, ezartzen du programa-kontratua jarraibide horietara egokitu beharko dela ezarritako aldietan.

II. kapituluak hezkuntza-proiektua garatzen du, eta haren ezaugarriak, gutxienezko edukiak eta helburuak definitzen ditu. Hezkuntza-proiektua idazteko prozedura ere ezartzen du.

Horrez gain, hezkuntza-proiektuak zuzendaritza-proiektuarekin duen lotura adierazten du.

Era berean, 98. artikuluan ikastetxeen autonomiaren eta kalitatearen arteko lotura ezartzen du, bai eta hezkuntza-arloan eskumena duen sailak ikastetxeen kalitatea bultzatzeko beharrezkoak diren programak eta ekintzak sustatzeko konpromisoa ere. Programa eta ekintza horiek, besteak beste, honako eremu hauetan proiektatu ahal izango dira: hizkuntza-proiektuetan, hezkuntza-berrikuntzako proiektuetan, ikastetxeen kudeaketa efiziente eta berritzailean, eskolako bizikidetzak eta inklusio-ereduetan edo digitalizazio-proiektuetan.

III. kapituluak ikastetxeen autonomia-eremuak garatzen ditu. 99. artikuluan, autonomia pedagogikoaren esparrua ezartzen du. 100. artikuluan, ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe

pribatuen antolaketa-autonomiaren eremuak ezartzen ditu, eta, 101. artikuluan, berriz, ikastetxe horien kudeaketa-autonomia.

Azkenik, 102. artikuluan, itundu gabeko ikastetxe pribatuen antolaketa- eta kudeaketa-autonomia ezartzen du.

### 3.- Arauaren helburuak

Dekretu honen helburua da Hezkuntzaren Legean ezarritako aginduak aplikatzea, ikastetxe bakoitzaren autonomiaren erabilera bateragarria izan dadin Euskal Hezkuntza Sistemaren funtzionamendu integratuarekin, bat etorrira Hezkuntzaren Legearen 3. artikulua arabera sistema hori arautzen duten printzipio guztiekin, ikastetxeen errealitatera eta premietara gehiago egokitutako kudeaketa-esparru batean.

Euskal Hezkuntza Sistemaren funtzionamenduak bere helburuak lortzea ahalbidetu behar du, Hezkuntzaren Legean zehazten den bezala: Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema pixkanaka eraldatzeko oinarriak arautzea, euskal gizartearen eskakizunetara egokitzeko. Ekitatea eta exijentzia oinarri hartuta artikulatu behar da eraldaketa hori, balio hauek bultzatuta: inklusioa eta gizarte-kohesioa, ebaluazioaren kultura, bere irismenik zabalenean, eta euskara eta euskal kultura ardatz hartzen dituen esparru eleaniztun eta kulturarteko bat, bai eta bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania –euskara hizkuntza propio gisa–, menderatzea ere eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ondo ezagutzea ere.

Kontsultaren xede den xedapen orokorrak, Hezkuntzaren Legearekin bat etorritik, asmo irmoa dauka ikastetxearen eta haren zuzendaritzaren eremuan koka dadin erabakiak hartzeko ardatz nagusia, eta, betiere ikastetxearen autonomia-marjinak baliatuz, ikastetxeko profesionalen artean bana daitezkeen erabakiak hartzeko prozedurak. Azken batean, xedapen honetako aginduek zuzendaritzen lidergo sendo eta banatuko testuinguru batean kokatu nahi dute, baita ikastetxe bakoitzaren indartze instituzionaleko prozesu batean ere.

Ikastetxeen autonomiak alderdi askori egin diezaike erreferentzia. Hori kontuan hartuta, ulertzen da xedapen honek hezkuntza-sistemako ikastetxe guztiei eragiten dieten aginduak dituela, Euskal Hezkuntza Zerbitzua osatzen duten ikastetxeei soilik aplikatzen zaizkien aginduak, eta, azkenik, Eusko Jaurilaritza titular duten ikastetxe publikoei soilik dagozkien aginduak.

Lehenengoan artean, nabarmendu behar dira, legearen arabera, autonomia pedagogikoaren erabilera mugatzen dutenak eta edozein ikastetxek ematen dituen irakaskuntzei dagozkien tituluen baliozkotasunerako hezkuntza-administrazioak ematen dituen bermeetan oinarrituta daudenak.

Euskal Hezkuntza Zerbitzua osatzen duten edo funts publikoekin eutsitako beste irakaskuntza batzuk ematen dituzten ikastetxeei soilik aplikatuko zaizkien aginduek zehaztuko dute honako arlo hauei buruz Hezkuntzaren Legeak aurreikusten duena: ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuaren araubide juridikoa eta ikastetxe horien guztien pedagogia-, antolaketa- eta kudeaketa-autonomiaren eremuak definitzen dituzten ezaugarri orokorrak. Horietako bakoitzaren autonomia hezkuntza-proiektuaren inguruan garatzen da, eta, besteak beste, hezkuntza-proiektuaren curriculum-zehaztapenen eta ikastetxearen antolaketa- eta funtzionamendu-arauen bidez egituratzen da. Arau horiek, Hezkuntzaren Legearen arabera, ikastetxe bakoitzaren jarduera-eremuetan daude, eta ikastetxe bakoitzak landu eta onartu behar ditu. Arauek esparru bat eta gutxieneko eduki batzuk dituzte, eta, Legearen arabera, xedapen honek ezarri eta sistematizatuko ditu.

Ikastetxe publikoetarako soilik diren aginduak Hezkuntzaren Legearen 99., 100. eta 101. artikuluen zehaztapenetik eta garapenetik eratorritakoak izango dira –antolaketa-autonomiaren, langileen kudeaketaren eta kudeaketa ekonomikoaren erabilera zehatzari buruzkoak–, eta, loturagatik, ikastetxe publikoen gobernantzaren arloan Hezkuntzaren Legearen III. tituluari jasotako aurreikuspenen garapenetik ondorioztatzen dena. Agindu horiek I. kapituluari (governantza, plangintza eta programa-kontratua) eta II. kapituluari 1. atalean (ikastetxe publikoetako gobernu-organoak) jasotzen dira.

Hezkuntzaren Legeak agintzen duen bezala, ikastetxearen zuzendaritzak lidergo globalaren papera hartzen du ikastetxe publikoen jardunean. Lidergo horren erreferentzia zuzendaritza-proiektuan formulatutako hezkuntza-proiektuaren zehaztapena da. Proiektu hori ikastetxeko zuzendariak egin eta defendatu behar izan du, kargua hartzeko. Xedapen honen gaia ez da ikastetxe publikoetako zuzendaritzen berariazko erregulazioa egitea, baina bai dagokio ikastetxeko zuzendaritza-proiektuaren funtzioa zehaztea, zuzendaria izendatu ondoren.

Hala ere, kontuan hartu behar da ikastetxeen autonomiaren jarduna antolatzen duten printzipioen garapena funts publikoekin sostengatutako ikastetxeen kontrol eta kudeaketan parte hartzeko testuinguruan egiten dela, zeina arlo horretako legeria organikoak arautzen baitu funtsezko alderdietan eta Hezkuntzaren Legean jaso eta zehazten baita. Ondorioz, xedapen honek jaso beharko du, eta erregelamenduzko alderdietan artikulatu, eskola-komunitateko sektoreen parte-hartzea funts publikoekin sostengatutako ikastetxeen kontrolean eta kudeaketan.

Azkenik, autonomia baliatzea emaitzen eta prozesuen ebaluazioari lotuta dagoen heinean, xedapenak ikastetxeko ebaluazio-prozesuen eta horien ondorioen ezaugarri orokorrak ezarri beharko ditu, hargatik eragotzi gabe kasu bakoitzean erregulazio espezifikoan ezartzen dena, zeina Jaurlaritzari baitagokio, eta, hala badagokio, Sailari. Hori guztia bai Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Institutuaren jarduerari dagokionez (Hezkuntzaren Legearen 83. artikuluan arautua), bai euskal hezkuntza-sistemaren ebaluazioak eta hobekuntzak ukitzen dituen beste alderdi batzuei dagokienez, Hezkuntzaren Legearen IV. tituluari II. kapituluaren arabera (berrikuntza, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza).

Kontsultaren xede den arau-xedapenak, era berean, mugatu egin beharko ditu ikastetxeen autonomiaren egikaritza eta horrek berekin dakartzan erabakiak hartzeko eremuak. Gainera, ikastetxeen autonomiaren garapenak hezkuntza-administrazioaren jarduerak ere baldintzatuko ditu. Ikastetxe bakoitzaren bilakaera autonomoak, arau-xedapen honek aurreikusiko duenaren esparruan, berekin ekarriko du, nahitaez, dagozkion administrazio-jarduerak bereiztea, modu objektibo eta gardenean.

Arau-xedapen honen xedea izango da ikastetxeen autonomia-araubidea eta haiei lotutako ebaluazio-alderdiak ezartzea.

Hauek izango dira arauaren helburu espezifikoak:

- Zehaztea, ikastetxeen autonomia-esparruaren barruan, eremu pedagogikoak, antolaketakoak eta giza baliabideak eta materialak kudeatzekoak.
- Eremu pedagogikoaren barruan, autonomia pedagogikoa eta curriculumen antolaketa gauzatzeko esparrua ezartzea, bai eta beste hauek ere: curriculumaren zehaztapenak eta horri lotutako antolaketa-neurriak, tutoretza-ekintza, pedagogia- eta curriculum-berrikuntzako proiektuak eta ikastetxearen estrategia didaktiko propioak.

- Antolaketa-autonomiaren esparruan, ikastetxeek haren antolaketa- eta funtzionamendu-arauak ezartzeko beharrezkoak diren alderdiak definitzea (onarpena, edukia...). Era berean, ikastetxe publikoen antolaketa-egiturarako irizpide espezifikoak definitzea, baita funts publikoekin sostengatutako ikastetxe pribatuentzat ere. Ikastetxeen antolaketa pedagogikorako irizpideak ezartzea, bai eta beste hauek ere: bizikidetza sustatzeko har daitezkeen neurriak, neurri zuzentzaile eta zehatzaileak, eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten faltak zuzentzeko bermeak eta prozedura.
- Ikastetxeen kontrolean eta kudeaketan parte hartzeko esparrua garatzea, kide anitzeko partaidetza-organoen bidez, eskola-kontseilua eta irakasleen klaustroa azpimarratuz.
- Beharrezko mekanismoak ezartzea hezkuntza-administrazioak ikastetxeen autonomia errespetatzeko eta autonomia hori gauzatzen laguntzeko, ordenamendu juridiko orokorraren esparruan, eta ordenamenduan aurreikusitako gainbegiratze- eta kontrol-ahalmenak izan ditzan.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduerak egokitzea, bere eginkizunak betetzean dagozkionak, ikastetxeen autonomia-araubidera eta zuzendaritzei esleitu beharreko erantzukizunetara.
- Beharrezko mekanismoak ezartzea Euskal Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeek beren autonomiaren erabilera Hezkuntzaren Legean ezartzen diren printzipio eta arauetara egokitu dezaten.
- Ikastetxe horien ebaluazio-mekanismoak ezartzea, autonomiaren erabilerari lotuta.
- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua garatzea, ikastetxearen autonomiaren adierazpen goren gisa, eta, besteak beste, honako hauek ezartzea: haren definizioa, edukia, onarpen- eta zabalkunde-prozesua, lotura eskola-komunitatearen partaidetzarekin, jarduera osagarriekin, eskolaz kanpoko jarduerekin eta eskola-zerbitzuekin, urteko plana, ingurunearekiko lotura eta programa-kontratuaren bidezko erantzukidetasun-akordioak.
- Ikastetxe publikoen antolaketa-autonomia zehaztasunez garatzea, besteak beste honako hauek ezarriz:
  - Ikastetxe publikoetako zuzendaritzei laguntzeko neurriak beren autonomia baliatzean.
  - Tutoretza, irakasleen koordinazioa eta beste koordinazio espezifiko batzuk hobetzeko neurriak.
  - Ikastetxe publikoen kontrolean eta kudeaketan parte hartzea.
- Ikastetxe publikoen zuzendaritzaren eta kudeaketa-autonomiaren esparrua garatzea, honako alderdi hauek azpimarratuz:
  - Langileak kudeatzea (plantillak eta irakasle-lanpostuak definitzea...).
  - Kudeaketa ekonomikoa, zerbitzuena eta baliabide materialena.
  - Ikastetxe publikoen erabilera soziala kudeatzea.

4.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Hezkuntzaren Legeak hau ezartzen du laugarren xedapen gehigarrian: - *Ikastetxe publikoen autonomia- VI. tituluaren ezarritakoari kalterik egin gabe, lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bi urteko epean, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxe publikoen autonomia arautu behar duen esparrua aurkeztuko du Eusko Legebiltzarrean.*

Kontuan hartuta Hezkuntzaren Legea 2024ko otsailaren 4an jarri zela indarrean, beste dekretu-proiektu bat tramitatzen hasten da. Izan ere, araua eguneratzeko proposamena biderik onena da bermatzeko EAEko hezkuntza-sistema behar bezala egokitzen dela kalitatezko eskola ekitatibo bat lortzeko proposamenetara.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Erakunde publiko eta pertsona fisiko guztientzat irekitzen da, bai eta etorkizuneko arauzko erregulazio honek ukitzen dituela uste duten erakunde, entitate edo elkarteentzat ere.
- Argitaratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan, Legegunean eta Irekian.
- Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da, ukitutako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek iradokizunak eta oharrak aurkez ditzaten, egokitzen joz gero.

Kontsulta publikoaren tramite hori da, beraz, une honetan bideratzen ari garena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Gainera, arau-proiektua egin baino lehen egin da, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan arautzen den prestaketa-fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenei jarraikiz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Kontsulta publikoaren izapidea egitea Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen autonomia-esparrua arautzen duen xedapen orokor bat egiteko proiektuari, hura egiten hasi aurretik.

Bigarrena.- Herritarrek eta arauak ukitutako erakundeek, hala nahi badute, agindu honetan azaltzen diren alderdiei buruzko iritziak helaraz ditzakete, hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren eguna.